

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

Bertsu Txapelketa:
lehen finalerdia /08

ELKARRIZKETA

Xanti
Iparragirre /09

LEINTZ GATZAGA

Gero eta jende gehiago
museoan /10



ANTZERKIGINTZA IKASTAROA

Antzerkia duzu gustuko? Aktore izan gura duzu?
Zatoz gurekin eta ikasi.

GUARDIAKO FARMAZIA

ZAPATUA, 22
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22
DOMEKA, 23
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK
Almen 943 71 49 07
ARETXAGAZETA 943 79 86 21
Faxa 943 77 18 54
Basobx 943 77 09 81
Euskaltegia 943 79 21 68
Gizarte laguntzailea 943 71 18 62
Hezibide elkarte 934 79 31 32
Industrialdea 943 79 62 80
Institutura 943 79 79 00
Kirol etxea 943 71 26 28
Kultura etxea 943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
Kurtzebarri BHI 943 79 57 40
KZGunea 943 79 94 44
Liburutegia 943 71 18 62
Loramendi EE 943 77 09 70
Ludoteka 943 79 05 81
Mankomunitatea 943 79 30 90
Murruxiko ME 943 79 93 74
Musika Eskola 943 79 36 50
Osasun etxea 943 71 19 59
Otalora 943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77
Postetxea 943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
Taxi geltokia 943 77 12 64
Udal Bulegoak 943 71 18 62
Udalzaingoa 943 71 18 63
Urats Gain 943 79 99 11

UDALZAINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIK
SOS Deiak 112
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaintza 943 53 47 20
Gurutze Gorria 943 76 55 76
Larrialdia 943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: GOROETA
Domekan 12:30ean.

ARKARAZO
Zapatuan 11:30ean.

GALARTZA/IZURIETA/GELLAO
Ez dute mezarik esango.

OHARRAK

BAI EUSKAL HERRIARI TALDEA
EHNA tramitatzea helburu duen taldea egubakoitzetan batzen da, 19:00etan, udal-
txe zaharrean.

OSPAKIZUNA MURU-ALDE ELKARTEAN

Bihar, zapatua, 50. urteurrenaren ospakizun handia izango dute Muru-Alde elkarteak. 12:00etan meza egingo dute elkarteak, hildako bazkideen alde, eta 13:00etan omenaldia egingo diete ohorezko bazkideei. 14:30ean bazkaria izango dute, eta Murua eta Mendizabal bertsolariak izango dira. Bukatzeko, Madina soinu jotzaileak alaituko du arratsaldea.

ETXEKO OLIOA BATUKO DUTE
Astelehen goizean, erabilitako olio eta hondakin arriskutsuak batuko dituzte azoka egiten den lekuan.

EUSKAL HERRIKO HISTORIAREN GAINEKO HITZALDIA

Eguaztenean, hilak 26, Euskal Herriko historiaren gaineko hitzaldia egingo dute Kurtzebarri eskolan, 19:00etan. Erlantz Urtasun historialariak jardungo du.

'SHIATSU' LANTEGIA

Shiatsu masaje sendagarririk zelan eman ikasteko lantegia antolatu du Zainduz Zentroak. Bihar eta etzi egingo dute.

LORAMENDIREN AGENDA


ANTZERKIGINTZA IKASTAROA
Antzerkiaren gaineko ikastaroa hasiko dute gaur, eta egubakoitzero emango dute 18:00etatik 20:00etara. Interesatuok deitu Loramendira.

SEASKAKO EGUTEGIAK SALGAI
Nafarroako eta Iparraldeko ikastolei laguntzeko Seaskako egutegiak dituzte salgai Loramendi EEn. Arratsaldeetan bakarrik. Hiru euro balio dute.

ORAINDELA 7URTE ARETXABALETAN

Bainuetxean industrialdea eraikitzea onartu zuten

Bainuetxe ingurua industriarako lur izendatzea erabaki zuten udalbatzak 1996ko azaroan. Horretarako 4,7 hektarea erabiltzea onartu zuten, eta Urkulurako bidegorria egitea aurreikusitako zuten orduan. Bide batez, Bainuetxe zuhaitzak eta iturria bere horretan uztea eskatu zuten.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elepuru

"Atselekua"

Atsedeen lekua.
—Urrutitik sendorrek bizkarka ekarri behar ziren etxetan, bide erdian atselekua egon ohi zen. Bi esola zutik eta gainean ohol bat, karga han utzi eta gero berriz erraz bizkarreratzeko.



GORKA ORTEGA

ZORIONAGURRAK

Zorionak!
Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARETXAGAZETAren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia eta emaiozu ezusteko ederra!
Doan!
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-oso-rik jaso ahal izango duzu, zorionagurria ARETXAGAZETAren agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

ARETXABALETAKO Igor Altube 18an, 9 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.	ARETXABALETAKO Eider Martinez 21ean, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.	ARETXABALETAKO Daniel Seijo 25ean, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.

BABESLEA
PHOTOSYNTHESIS
argazkilaritza
35mm, APS eta digitalen errebelatuak
24 orduan. Tamaina guztiak.
Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak
Herriko plaza 5 ARETXABALETAKO 943 79 79 67

LIBURUTEGIKOTXOKOA

'Asier eskaileretan...'

Igande goiza da eta Asier oso goiz jaiki da lehengusinarekin eta aitona-rekin txalupan ibiltzeko. Eskailerak jais-tean, ordea, gauza oso berezia gertatuko zaio: New Yorken agertu da. Istorio bat bestearekin lotuz joango da, hainbat pertsonak kontatutako istorioak, beti umore handiz eta nonsensearen kutsuz.

Leireren lehen liburua da honako hau, baita Alex Orbe ilustratzailearena ere. Irakurketa arin egiten da istorio laburrak sartzen dituelako eta elkarrizketa ugari duelako; eta marrazkiak ongi lotzen dira kontakizunarekin. 8 urtetik aurrera irakurtzeko moduko liburua da.



ASIER ESKAILERETAN BEHERA

Leire Iradier
Aizkorri, 2003
59 orrialde

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

EGUZKIGRAF
inprimategia
...egutegiak,
gabonetako tarjetoak,
Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Tfnoa.: 943 791844 / Faxa: 943 792941
info@eguzkigraf.com
20550 ARETXABALETAKO

ARQUERO CONSTRULAN S.L.
ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK
Zuzendaria:
Lyonel Arquero
Dekorazioa:
Soraya Arquero
Tel.: 943 79 01 51
Basabe Poligonoa 4, EQ-11 • ARETXABALETAKO


ATREBENTZIAEZPADA/ Imajiñetan dozu zeure bizimodue poltsikoko telefono barik?



ANA URZELAI
Langillie




ENRIQUE RIAÑO
Langillie



CONCHI FERRARA
Langillie



IGNACIO GALDOS
Langillie



JENNIFER GUERRERO
Iksalje



ALBERTO SAN MARTIN
Langillie

Bai, lasai asko. Badauket, baiñe total... ez dot sekula entzuten. Poltsan erueten dot egunero, baiñe ez dot ebalten. Jentiek galdetu be egitten dust ia zertarako dauketen telefonue.

Bai, poltsikoko telefono barik neure bizimodue hobie izen-go litzake. Ez dot egunero ebalten. Aste bukaeretan lanerako eukitten dot; bestela, etxetik kanpora naue-nien eukitten dot aldien.

Bai, ez dot ebalten-eta. Etxien senarrak dauko, baiñe nik ez dakit martxan zelan jarten dan be. Sekula ez dot bizi izen poltsiko-ko telefonue biher-bihe-rrazkue dan momenturik.

Oin, momentu honetan, ez. Derrigorrezko gauza bat dala uste dot. Lanerako, etxerako... Danien ebalten dot. Momentu batzutan pertsonie kontrolpien euki-tteko balixo dau.

Ez. Egunero ebalten dot lagunei deiketako eta men-sajiek bielketako. Oin dala urtebete erosi neuen, eta sarri ebalten dot. Ezin izen-go nitzake bizi poltsikoko telefono barik.

Ez. Ohittute gauz poltsi-koko telefonuez deixek egi-ttera eta mensajiek biel-ketara. Neuk asko ebalten dot. Lanerako, lagunekin geraketako... Hiru erosi dittut dagoeneko.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK KAKA, EDONON! Oinezkook ikasita dugu lorategiak txakurren komunak direla eta ezin gaitezkeela haietara sartu. Hala ere, laster kaleak ere hartuko dizkigute! Izan ere, Durana behin eta berri-ro azaltzen da txakur kakaz beteta. Txakurrek ez dituzte nire txistuak ulertuko. Gainera, horiek erakusten zaien lekuan egiten dituzte behar-rrak; hortaz, txistuak, kaka edonon egiten duten txakurren jabeai. /A.L.

ETABARRUAN...

ETXEBIZITZAK /04

ELKARRIZKETA /05

KIROLAK /06

Errekaren beste aldean

II-B sektorean, errekaren beste aldean, etxebizitzak egiteko hasierako onarpe-na egin dute.

Iurgi Etxebarria

Antzerkigintza ikastaroa antolatu du Loramendi EEk. Iurgi Etxebarriak emango ditu eskolak.

Banakako entrenamendua

Kirol etxean banakako entrena-mendu zerbitzua jarri dute martxan. Kirola nola egin erakutsiko dute.

ASTEKODATUA

40

GUTUN BANATU DITUZTE BAI EUSKAL HERRIARI TALDEKOEK

Euskal Herriko Naziotasun Aitorpena bultzatzeko asmotan sortu berri den taldeak 40 eskutitz banatu ditu astean. Eskutitzen bidez EHNA egiteko eta erabiltzeko atxikimenduak batu gura dituzte.

BESTEKEESANA


“Gizakiak historian zehar munduan egoteko hainbat modu garatu ditu. Horren emaitza dira

hizkuntza guztiak. Gizartearen aberastasun handienak dira ikuspegi desberdin horiek. Etika Ekologistak esaten du aberastasun hori zaindu eta garatu behar dela.

Hizkuntzen mantentzearen aldeko ideia, oso erraz ulertzen da Amazonian, baina arazo gehiago sortzen ditu etxean. Europako mugimendu ezkertiar batzuen aldetik iruzur asko ikusten ditut. Identifikazio interesatuak egiten dituzte, hala nola, hizkuntza gutxituen aldeko borroka intolerantzia, xenofobia eta horrelako mezu ilunekin lotzea. Tolerantzia, mestizajea eta unibertsaltasuna erabiltzen dira hitz gisa hizkuntza txikien aurka.

JON SARASUA
‘Berria’/03-11-16

HERRITARRENBERBAK/ Lore Abarik



Umoreaz eta pazientziatz...

Galizian. Heldu da gure kostaldera ere morokil beltza... Horrela hasten zen orain dela urte bete inguru idatzitako artikulua. Egia esaten badizuet, tentatuta egon naiz, artikulua bera hartu eta hilabete honetako artikulua bezala pasatzen, orain dela urte betetik ona, ez baitira gauzak asko aldatu. Hori bai, eskupekoak medio izanik, oraindik sinistu ezin dudana Peperen Muxiako gehiengo osoa, eta norbaitzuek eginiko adierazpen txundigarriak gehitu beharko genituzke.

Baina umoreaz eta pazientziatz gainditu ahal izango dugu...

Catalunyan. Igandean ospatutako hauteskundeek abertzaletasunari eman diote gehiengo osoa eta ni, pertsonalki, bihotzez pozten naiz!! Peperen taldean, aldiz, Pique-k Mayor Orejari leporatu zion, kanpaina guztia pikutara bota ziola, Catalunya ez delako Euskadi eta ezin delako era

berdinean tratatu. Mayor Oreja ez zen konturatu Catalunya ezin dituela Euskal Herrian esaten dituen adierazpenak egin eta astakeriak esan.

Baina umoreaz eta pazientziatz gainditu ahal izango dugu...

Euskal Herrian. Catalunyan ez bezala, hemen denak balio du, abertzaletasunaren aurka badoa behintzat: gure hizkuntza, kultura, zinema, politika... edozein arlo arte, orokorrean euskalduna denaren aurkako edozer da zilegi. Hori bai, hemen

arreta handiz ibili beharra dugu: kontuz zer egiten, esaten, margotzen... duzuen Espainiako errege eta erregina izango direnen inguruan. Oraingoan, Deian egin dute, eta demanda jarri diote. Orain, barre zerekin egin dezakegun edo ez, esan behar al digute Espainia aldean? Hori bakarrik falta zaigu!!

Pazientziak ez dakit zenbat iraungo digun, umorea ere kentzen badigute...

“Catalunyan ez bezala, hemen denak balio du, abertzaletasunaren aurka badoa behintzat”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martín

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
55-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak



Eusko Jauriaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



M. J. Aretxaga

Hemen da negue

Udazkena aurrera doie; ez hori bakarrik, hotza aillegau jaku, eta negu usaintxue hartzen be hasi gara. Gabonak gainien dittugu, gainera. Edo hori siñistu eragin gura duzkue komertzio haundixetako jabiek. Hortaz ditxosozko Gabonok pasau artien ez dogu bakerik eukiko.

Gaur kontu gutxi dauket, baiñe polittek. **Jon Sarasua** Parisen izen zan joan zan astien. Foro sozialien hartu euen parte Euskal Herriko ordezkari moduen, eta hizkuntzen ekologian gainien euskun berba. Nik, neuk, ez dakit zer dan ekologia hori baiñe gure euskerien gainien egin euela berba seguru. Batzuetan, sinpletxuago berba egittie eskatuko nuskio Joni, esaten dittuen gauza asko badakit interesantiek diela baiñe ez dutzet bape ulerketan.

Bestetik, **Alberto Iñurrategi** aittetu gure dot. Izen be, Goitbko *Iluntzean* saiuen egon zan Aintzane Gardoki aurkeztiekin berbetan. Mendixe izen zan elkarrizketako ardatza, baiñe beste kontutxo batzuk be kontau zittuen. Ez zeuela ikusi? Trankil aste bukaeran errepetiduko daue-eta.

Negu usaintxuekin, Udalak antolatuko dauen *Negu-Kulturaleko* egitarauen zain geraketan naz hurrengo aste arte.

ETXEBIZITZAK/ Etxebizitzen %65 babes publikokoak izango dira, hau da, babes ofizialekoak eta Udalarekin adostutakoak

Errekaren beste aldean etxebizitzak egiteko hasierako onarpena egin zuten osoko bilkuran

MIRARI ALTUBE

Deba errekaren beste aldean etxebizitzak egiteko egitasmoa aspaldikoa da. Zurrumuru ugari sortu da, gainera, herrian, azken hilabeteotan. Orain aste bi egin zuten osoko bilkuran hasierako onarpena adostu zuten, eta alegazioak aurkezteko epea zabalduko dute.

II-B sektorearen edo erreka osteko lursailen hasierako onarpena egin zuten ohiko osoko bilkuran. Bide batez, aurkeztutako iradokizunei erantzuna ematea onartu zuten, eta alegazioak aurkezteko epea zabalduko dute.

%65 BABES PUBLIKOKOAK

Errekaren ostean egingo dituzten etxebizitzak inguruko hainbat iragarki azaldu dira komunikabideetan azken hilabeteotan. Horrek nahasmena eragin du herriartean, batez ere etxebizitza erosteko interesa dutenengan.

Udaleko Hirigintza Saileko arduradunen esanetan, oraindik ez dago ezer eginda; horrenbestez, iragarkiok ez dute inongo sinesgarritasunik. Oraingoz, hasierako onarpena besterik ez du egin udalbatzak, eta orain, alegazioak aurkezteko epea zabalduko dute. Aurretik jarrita zeu-



Urte batzuk barru etxebizitzak izango ditugu errekaren beste aldean, orain zelaia eta ortuak dauden lekuan.

den iradokizunei erantzutea ere adostu zuten. Iradokizunek eskatuta, II-B sektoreak 83 mila metro koadro dituela zehaztu zuten, eta sektore horren eta Cerrajera Valle Leniz lantegiko lurren artean

behar den bezalako bereizketa egin dute.

Hirigintza Sailean ez dakite lanok noiz hasiko dituzten ezta zenbat etxebizitza egingo dituzten ere; prozesua hasi besterik ez

da egin. Edozelan ere, egingo dituzten %65 babes publikokoak izango dira; hau da, batzuk babes ofizialekoak eta beste batzuk Udalarekin adostutako prezioa izango dutenak.



Su hartu zuten Mitarte kaleko edukiontziek


Joan zen astean, hilaren 13an, 15:00ak pasatxo zirela, hain zuzen, su hartu zuten Mitarte kalean dauden edukiontzi bik. Berehala etorri ziren udaltzainak, ertzainak eta suhiltzaileak; hala, inguruan aparkatuta zeuden automobilek ez zuten kalterik izan. Udaltzainen berbetan, oso zaila da edukiontziotan sua piztea barrura ezer bota barik; hala ere, inork ez zuen aparteko ezer ikusi. /M.A.

LEIBAR

arrandegia



Mitarte Kalea 1
Tel.: 943 77 13 79
Aretxabaleta



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76

Aretz

taberna

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

ELKARRIZKETA

IURGI ETXEBARRIA/KUKUBILTZO TALDEKO KIDEA

“Antzerkigintzan lan egiten dugun aktore asko oso lotsatiak gara”

M.A.

Antzerkiaren gaineko ikastaroa antolatu du Loramendi EEk. Oinarrizko ikastaroa izango da, eta 16 urtetik gorako guztiek har dezakete parte. Irakasle, berriz, Kukubiltzo taldeko aktore bat izango dute: Iurgi Etxebarria.

Antzerkigintza ikastaroa antolatu du Loramendi EEk. Zer erakutsiko duzu?

Hastapen ikastaroa izango da, eta zortzi egubakoitzetan bi orduko eskolak emango ditut. Taldeko jokoak egingo ditugu lehenengo, geure artean konfiantza hartzeko. Aurrean egon daitezkeen ikus-entzuleei zelan begiratu eta eszenatokian zelan egon erakutsiko diet.

Hortaz, lotsa etxean uzten ikasiko dute?


Ez, horretarako denbora luze-agoa beharko genuke, askoz luze-agoa. Antzerkigintzan gabiltzan aktore asko, gainera, oso lotsatiak gara. Lotsa kontzentrazio bidez gaintzen dugu, aurrean dagoenarengan gehiegi erreparatu barik.

Norendako da ikastaroa?

16 urtetik gorakoendako jarri dute antolatzaileek. 16 eta 30 urte artekoak gehiago badira dinamikoagoa izango da, joko gehiago egingo ditugulako. Hala ere, taldeak ezarriko du martxa; ez dut dinamika aldatzeko arazorik.

Zein ezaugarri behar ditu batek aktore izateko?

Ez da ezaugarri kontua. Antzerki mota asko daude: kale antzerkia, antzerki serioa... Eta nork berea topatu behar du; hau da, bere burua gusturen sentitzen den antzerki mota. Hori horrela, antzerki mota gehienak ukitzen saiatuko naiz, eta guztiak ondo jorrazteko denborarik ez izan arren, gutxienez ezagut ditzaten gurako nuke. Talde osoa antzerki mota berarekin sentitzen bada gustura, hori landuko genuke, baina ikusi egin behar.



M.A.

“Lotsa kontzentrazio bidez gaintzen dugu, aurrean dagoenarengan erreparatu barik”

Zenbat urte daramatzazu antzerkigintzan?

Lau urte egin nituen ikasten, Basauriko eskolan bi eta Kukubiltzo taldean beste bi; gero Kukubiltxon hasi nintzen lanean eta dagoeneko 10 urte daramatzat.

Antzerkigintza gora edo

“Antzerki mota gehienak ukitzen saiatuko naiz, gutxienez ezagut ditzaten”

behera doala uste duzu?

Gora doala esango nuke. Antzerki eskola gehienak beteta daude eta antzerkia ikustera joateko jendeak samurrago ordaintzen du sarrera; hala ere, argi dago antzezlan onek baino gehiago izen ezagunek erakartzen dutela.


LABUR

Erlantz Urtasun historialariak Euskal Herriko historiaren gaineko hitzaldia egingo du

Kurtzebarri eskolak Euskal Herriko historiaren gaineko zikloa hasiko du datorren astean. Ikasturte honetan hitzaldi bi egingo dituzte eta beste bi hurrengoan. Lehenengoa datorren egubakoitzean egingo du Nabarralde Elkarteko Erlantz Urtasun historialari nafarrak. Kurtzebarri eskolan izango da hitzaldia, 19:00etan, eta herritar guztiek har dezakete parte.

Mondragon Sistemas kooperatiba elkarteak papergintzako linea bi berritu ditu atzerrian

Aretxabaletan egoitza duen eta Fagor taldekoa den Mondragon Sistemas kooperatibak Turkmenistanen eta Frantziaren egoitza duten papergintzako linea bi berritu ditu oraintsu. Frantziarako egin duten paper-lineak prozesu bi ditu: paper oreak prestatzeko bata eta oreka egiteko bestea. Linea horrek, gainera, kotoia erabiliz urtean 16.000 tona paper ore egiteko gaitasuna du.



Zuhaitzak inausten ibili dira astean


Udazkena aurrera doa eta gure kaleak hostoz beteta egon dira azken egunotan. Hori horrela, Errekabarren kalean dauden platanondoak inausten ibili dira, Udalaren izenean, Makai lorezaintza enpresako langileak. Herriko Plazan daudenak izan ezik -horiek bi urtean behin egiten dituzte-, urtero inausten dituzte herriko gainerako platanondoak. Horrela, kale garbitzaileek ez dute egunero hostoak batzen ibili beharko, sarritan arriskutsu bihurtzen direnak, eta era berean zuhaitzak ez dira gehiegi haziko. /M.A.



TABERNA

ARLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABALETAKO • TEL. 943 79 32 34



PIENSO SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongariak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETAKO
Tel.943 77 00 33/79 42 56



Miren & Zuriñe

Bitxitegia • Erloju denda
Bitxien diseinua
Bitxien konponketa

Otalora 4 (eliza aurrekaldean)
Tel.: 943 77 13 57
ARETXABALETAKO



SANER

ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A
ARETXABALETAKO
943 79 64 91
605 71 66 92 / 629 47 72 70

KIROL ETXEA

Banakako entrenamenduak egiteko zerbitzua jarri dute kirol etxean

Aholkularitza zerbitzuak balioko du edozein kirol mota modu egokian egiten ikasteko


AMAGOIA LASAGABASTER

Kirol etxean banakako entrenamendua izeneko zerbitzua jarri dute abian. Bixen Calzon izango da arduraduna, eta, besteak beste, kirola modu egokian nola egin irakatsiko die bezeroei. Banakako entrenamendu zerbitzuak 60 euro balioko du.

Iaz jarri zuten martxan banakako entrenamendu zerbitzua kirol etxean. Orduan, bekadun bati esker egin zuten aholkularitza lana. Kirol teknikari Asier Muxikaren esanetan, esperientzia hura oso positiboa izan zen, eta horregatik erabaki dute orain behar den moduko zerbitzua eskaintzea. Horrela sortu da, hain justu, banakako entrenamenduak egiteko zerbitzua. Helburua da bezeroei edozein kirol egiteko behar den moduko aholkuak ematea.

BOST URRATS

Banakako entrenamendu zerbitzua bost urratsetan egingo dute: lehenengo eta behin, elkarrizketa pertsonala egingo diote bezeroari. Horrek balioko du kirola-



Zerbitzu berriarekin, muskulazio gela erabiltzen ere erakutsiko diete bezeroei.

riaren ezaugarriak, kezkak eta helburuak jakiteko. Horrez gain, lan dinamikaren gaineko azalpenak emango dizkiote; bigarren urratsean, osasun azterketa egingo diote; hirugarrenean, egin beharreko kirol saioaren planifikazioa egingo dute; laugarre-

nean, kirol hori egiteko beharrezkoak diren prestakuntza saioak egingo dituzte; azkenik, bosgarrenean, eginikoaren balorazioa eta jarraipena egingo dute.

Kirol etxeak eskaintzen duen zerbitzu hori egiteko 60 euro ordaindu beharko dute bezeroek.

PILOTA

Nagusiek ez dute emaitza onik lortu Kluben Arteko Pilota Txapelketako lehenengo fasean

Lehenengo eta bigarren mailako nagusiek, hau da, Altzolak eta Lasagabasterrek eta Errasti anaiek, ez dute emaitza onik izan Kluben Artek Pilota Txapelketako lehenengo fasean. Partidu gehientsuenak galdu eta gero, sailkapeneko azken postuetan gelditu dira bikote biak. Orain, mailaz ez jaisteko ahalegina egin beharko dute.

FUTBOLA

Urola nagusi izan zen Ibarren eta UDA berriz ere atzean dago sailkapen orokorrean

Joan den asteburuan, UDAk galdu egin zuen Urolaren aurka Ibarren jokaturako partidua, 1-3. Norgehiagokan, dudarik ez, Urolakoak izan ziren nagusi une oro eta emaitzak horixe erakutsi zuen. Hala, UDAk ez dute sailkapenean aurrera egin eta bederatzi punturekin jarraitzen du, 18. postuan. Oraingo asteburuan, Santo Tomas Lizeoko mutilak izango dituzte aurkari.

PARTIDUAK

FUTBOLA

UDA/Almen-Bergara
Lehenengo mailako kadeteak.
Zapatua, 15:30. Ibarra.

UDA-Ostadar

Lehenengo mailako gazteak.
Zapatua, 11:30. Ibarra.

PILOTA

Aretxab.- Lazkao

Bigarren mailako gazteak.
Zapatua, 19:00. Iturrigorri.

Zumaia -Aretxab.

Lehenengo mailako gazteak.
Egubakoitza, 18:00. Eibar.

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA 1 Urola 3

Preferentea.

Union Txiki 5 UDA 0

Lehenengo mailako gazteak.

Billabona 2 UDA/Almen 2

Lehenengo mailako kadeteak.

UDA/Almen 2 Urki 1

Bigarren mailako kadeteak.

Lagun onak 3 Almen/UDA 0

Emakumezkoen liga.

UDA/Almen 3 Touring 0

Infantilak. Ohorezko liga.

Anaitasuna 7 UDA/Almen 0

Infantilak.

PILOTA

Aretxab.22 Oskarbi 12

Lehenengo mailako nagusiak.

Lazkao 22 Aretxab.9

Bigarren mailako nagusiak.

Aretxab. 22 Beloki 12

Lehenengo mailako gazteak.

Intxaurren 16 Aretxab. 22

Bigarren mailako gazteak.

ILUNTZEAN

Joan Mari Irigoien solaskide


Eguenean, azaroaren 27an
21:15ean

Aurkezlea:
Aintzane Gardoki



Ikusiko duzu!

ILUNTZEAN
Ile apaindegia: Gorka
Jantziak: Udalaiz



ERRETRATUZHARRA

Joxe Arriarani omenaldia Muru-Alden

Muru-Alde elkarteak 50. urteurreneko ospakizunak egin ditu azken bi asteotan. Egun handia bihar, zapatua, izango dute: meza, omenalditxoa ohorezko bazkideei eta bazkaria Murua eta Mendizabal bertsolariekin.

Hori horrela, elkarteko kideek erretratu zaharra utzi digute. Joxe Arriaran pilotari arrasatearrari egindako omenaldia ageri da bertan. Joxe Arriaranek 1955. eta 1956. urteetan buruz buruko Espainiako pilota txapelketa irabazi zuen, eta Muru-Alde elkarteko kideek omenalditxoa egin gura izan zioten. Erretratuan honakoak agertzen dira ezkerretik eskumara: Jesus Alberdi, Joxe Arriaran, Teodoro Zuatzua, Hilario Errasti (elkarteko presidentea), Luis Leanizbarrutia, Aquilino Garai, eta txapelarekin bizkarra ematen dagoena Nicolas Peña.

Gaur egun elkarteko presidente den Kepa Antxiak Muru-Alderaren gaineko kontu batzuk batu gura izan ditu elkartearen sortu zuten bazkideen ahotik. Felix Arenatzarekin egin zuen berba eta gorabehera ugari kontatu zizkion. Guk



kontu bi besterik ez dugu ekarriko: *Muru-Alde zopa*, esaterako, Felix Arenatzak berak asmatu zuen. Oso berakatz-zopa goxoa prestatzen zuen Felixek. Lehenengo, berakatz gorritzen zuen; gero, *pistola* deritzon ogia zatitu eta hura ere berakatzarekin eta olioarekin batera gorritzen zuen. Beste lapiko

baten ura irakiten edukitzen zuen, eta bertatik botatzen zion gorritutako ogiari. *Pistola* ogiak berakatzaren eta olioaren gustutxoa izaten zituen hartuta, eta oso goxoa egoten zen. San Inazio egunean, bestalde, elkartearen eguna ospatzen zuten, eta orduan aparteko bazkaria egiten zuten.


80 pezeta inguru ordaintzen zituzten bazkideek, eta angulak eta bildotsa izaten zituzten jateko. Bertsolariak eta orkestra ere ekartzen zituzten. Mila kontu 50 urteko bizitza duen elkartean.

Argazkia eta informazioa: Muru-Alde elkarte

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Sagardotegi izandako etxebizitza

Aretxabaletan hainbat etxe dotore ditugu. Horietako bat argazkian ageri da: Durana kaleko 15. atartea, hain zuzen. Garai baten sagardotegia egon zen bertan, eta kupelak ikusgai egon ziren orain urtebete inguru arte. Azken urteotan hutsik zegoen etxebizitza eta egoera txarrean, gainera. Orain, erabat berrituta daude bai etxebizitza hori, bai alboko guztiak.



≈ 1994 Udaleko langileek oinarritzko konponketak egin zituzten 1994an, alboko bizilagunek arriskurik izan ez zezaten.



2003 Erabat berrituta daude bai Durana 15 atartea, bai alboko etxebizitzak. Hala ere, kanpoaldetik lehenengo itxura bera gordetzen saiatu dira.

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAK

IRIARTE

Umeen denda
Helduen lentzeria



Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETAK

Maritxu

drogeria
mertzzeria

Araba Ibilbidea 24
Tel.: 943 79 23 53
ARETXABALETAK

JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA

Aretxagazeta

Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko azaroaren 21a / 146. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Maialen Lujanbiok Bertso Txapelketako finalerako bidea hartu zuen Eskoriatzan

AINTZANE GARDOKI

Maialen Lujanbio nagusitu zen joan den domekan, hilak 16, Eskoriatzan jokatu zen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako lehen finalerdian. Herritar asko hurreratu ziren Eskoriatzako kiroldegira saioa ikustera, eta bertsolariak saio polita eskaini zuten.

Maialen Lujanbiok 511 puntu lortu zituen Eskoriatzan jokatu zen lehenengo finalerdian. Aitor Mendiluzek baino bi puntu eta erdi gehiago, hain zuzen. Adituen esanetan, andoaindarra Lujanbio baino hobeto ibili zen bertsoan, baina kartzelako lanean poto egin zuen, eta ondorioz, Irunen abenduaren 14an egingo den finalerako zuzenerako txartela galdu zuen.

SAIO POLITA ETA JENDE ASKO

Joan den irailaren 26an hasitako txapelketa aurrera doa eta ezin da ukatu giroa bero-bero dagoela. Eskoriatzako kiroldegira hurreratutako jendeak saio politaz disfrutatu zuen. Eskoriatzar ugari eta kanpotik etorritako bertsozale asko batu ziren kiroldegian. "Lekuren batzuk hutsik gelditu



Maialen Lujanbiok lortu zuen puntuazio onena -511 puntu- joan den domekako saioan. Mendiluze izan zen bigarrena.

ziren arren, 900 lagun egon ziren domekan kiroldegian, eta izugarritzko giro polita egon zen", esan digu antolatze lanetan ibili zen herritar batek.

Lehiarako gogoia erakutsi zuten bertsolariak, eta saio bikai-

na eskaini zuten. Esan bezala, Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze ibili ziren txukunen. Hernaniarra urduri samar hasi zen, baina segituan konfiantza hartu eta sasoiko dagoela erakutsi zuen. Bertso sorta ederra eman zuen

hasiera-hasieratik lana amaitu arte. Aitor Mendiluzek ere lan bikaina egin zuen domeka arratsaldean, baina kartzelako gaian egindako poto baten erruz bigarren lekuan gelditu zen andoaindarra. Amaia Agirre ere txukun

"Lekuren batzuk hutsik gelditu ziren arren, 900 lagun egon ziren domekan kiroldegian"

baino txukunago aritu zen eta ederki gozatu zuen bertsoan. Arkaitz Goikoetxeak, berriz, gorabehera gehiago izan zituen arren, saio polita eta ona egin zuela esan zuten adituek.

Bestetik, Estitxu Eizagirrek eta Bixente Gorostidik ere irris-tadaren bat edo beste izan zuten arren, saio polita egin zuten.

FINALA, IRUNEN, ABENDUAREN 14AN

Maialen Lujanbio finalean izango da abenduaren 14an. Eskoriatzan egindako saioak bidea zabaldu zion zuzen-zuzenean. Beste bi finalerdi falta dira, eta hortik aterako diren irabazleekin batera puntuazio onena duten beste bost bertsolari izango dira finalean; irailan hasitako Gipuzkoako Bertsolari Txapelketak eman dituen zortzi bertsolari onenak.



Uriberekin eta Urdangarinekin, jendez gainezka

HUHEZIKO Fakultateak, Udaren laguntzaz, *Zaharregia, txikiegia* agian poesia eta musika ikuskizuna eskaini du. Kirmen Uribek, Mikel Urdangarinek, Rafa Ruedak eta Bingen Mendizabalek emandako ikuskizunean jende ugari egon zen. Ikasleez gainera, eskoriatzar askok hartu zuten parte. "Gutxitan gertatzen da horrelako arrakasta izatea. Jendeak izugarritzko txalo zaparrada eskaini zien artistei. Ikuskizun benetan ederra eskaini zuten", esan digu Arantxa Ozaeta HUHEZIKO irakasleak.

LABUR

Euskarazko jostailu eta materialaren erakusketa

Gabonak hurreratzen ari direla-eta, euskarazko jostailuen eta materialaren erakusketa egin gura izan du Euskara Sailak. Azaroaren 28an, 29an eta 30ean egingo dute. Alde batetik, adin askotariko haurrentako euskarazko jostailuak eta CD-ROMak egongo dira ikusgai. Bestetik, nagusiendako euskarazko baliabideak eskaintzen dituzten agenda, egutegi eta beste izango dira. Hilaren 28an eta 29an 18:30etik 20:30era eta domekan 13:00etatik 14:00etara egingo da zabalik.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Ezeiza	943 71 53 56
Arizmendi-Jose Arana	943 71 44 86
Arizmendi-Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oriati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

FILMA ETA MAHAI-INGURUA
Gaur, hilak 21, Amuska e-makume taldeak antolatuta *Cosas que diria con sólo mirarla* filma eskainiko dute kultura etxean, 18:30ean. Horren ondoren, mahai-ingurua egingo dute.

GAZTAINA ERRE EGUNA
LUIS EZEIZAN
Datorren azaroaren 27an gartzaina erre eguna egingo dute, Luis Ezeiza Herri Eskolako Guraso Elkarteak antolatuta, 17:00etan. Umeek, gartzaina erre eta txokolata janaz gain, eskulan lantegiak izango dituzte, baita gura beste jolas egiteko aukera ere. Jaia ikastetxeko patioan egingo dute.

AXTROKIRENAGENDA

SARRERAK SALGAI
Hilaren 24tik aurrera, Takolo Pirritx eta Porrotxen ikuskizunera joateko sarrerak salgai egongo dira Dorleta dendan, ludotekan eta Axtrokina. Ikuskizuna 29an da.

XANTI IPARRAGIRRE/ EUSKALTZALEA

“Aurtengo urtea normala izan da, bakean utzi gaituzte, eta nik nire bidea jarraitu dut”

AMAGOIA LASAGABASTER

Bertsotan Euskara Landu ikastaroa jarri gura dute abian Kontzejupe plataformakoek. Horretarako, Xanti Iparragirre-rena jo dute. 22 urte Eskoriatzatik kanpo egin dituen euskaltzaleak afalosteko giroa berotu gura du bertsotan.

Aurrera doa Euskara Bertsotan Landu ikastaroa?

Bai. Egunotan behar genuke elkartu. Eskoriatzako bertso ekitaldia pasatzen utzi guran nuen ikastaroari heltzeko. Beharbada, bertsoak entzunda berotu eta ikastaroan parte hartzeko gogoia piztuko zitzaion norbaiti.

Zer da, baina, Euskara Bertsotan Landu ikastaroa?

Nire gogoia ez da plazako bertsolariak egitea. Afalosteko giroan, bertsoak kantatzen irakatsi gura diet. Umorea eta euskara uztartuz ekitaldi batzuk egitera bultzatu gura ditut nire ikasleak. Bertsoak edozein euskalkitan kanta daitezkeela erakutsi gura diet. Ikastaroa malgua izango dela ere argi utzi gura dut.



AL

Hortaz, edonork eman dezake izena?

Noski. Gurea ez da neurri handiko bertsolaritza izango, ez dugu hori bilatuko.

Izan zinen Eskoriatzako finalerdian?

Bai, giro polita egon zen. Iku-si nuen taula gainean beteranoen

eta gainerako bertsolarien arteko banaketa. Horien bien arteko maila desberdina gelditu zen agerian. **Xanti, bada ia urtebete Eskoriatzara etorri zinela. Nolako urtea izan da hau?**

Nahasia hasieran. Arraroa ere ezin dezaket esan. Azken batean, normala. Bakean utzi gaituzte, eta

“Umorea eta euskara uztartuz, bertso ekitaldiak egitera bultzatu gura ditut ikasleak”

nik nire bidearekin jarraitu dut. Sarri joaten naiz Iparraldera oraindik ere. Egia esan, Euskal Herrian hara eta hona nabil beti. **Eta 22 urteren ostean, nola aurkitu duzu herria?**

Guztiz aldatuta; aurretik ere banekien hala izango zela, baina... Dagoeneko gazte jendea ez dut ezagutzen eta nire edadekoei dago-kenez, berriz, nor bere bizimodua egiten dabil. Lotura galdu egin dut. Baina poliki-poliki banabil bideak irekitzen.

Nola ikusten duzu Kontzejupe plataforma?

Ondo; hala ere, jendea behar dugu lan egiteko gertu dagoena. Bizitasuna behar dugu; bestela, jendea aspertu, eta joan egiten da.

TXUTXUMUTXUA



Pailazoak, ipuinak, umeak eta gurasoak

Joan den zapatuan, hilak 15, Arizmendi ikastolako Almen-guneak ateak ireki zituen: Potxin eta Patxinen ikuskizuna, Kamila zebaren ipuin musikatua, eskulan tailerrak... Eta, horrez guztiaz gain, gura beste jolas egiteko aukera izan zuten bertaraturako umeek. Irakasleen eskutik, berriz, gurasoek ikastola barrutik ezagutzeko aukera paregabea izan zuten. 150 lagunetik gora elkar-tu ziren eta arratsalde polita pasatu zuten elkarrekin.

LABUR

Santa Zezilia ospatzen lehenak umeak izan ziren

Izatez gaur da Santa Zezilia eguna, baina herriko gaztetxoek atzo, eguna, ospatu zuten musikarien zaindariaren eguna. Izan ere, Beheko Errota Musika Eskolak antolatuta *Top manta* antzerkiak gozatu ahal izan zuten umeek frontoian. Horren ondoren, askaria izan zuten eskolan. Giro ederra egon zen Musika Eskolaren inguruan.

Gaur, berriz, Musika Eskolako Bandak Santa Zeziliaren omenezko kontzertua emango du San Pedro parrokian, iluntzeko 20:30ean.



Aingeru-guardako ibilbidea
Tel.: 943 71 49 36
ESKORIATZA (Gipuzkoa)

- Sukalde altzariak egiten ditugu
- Armairu enpotratuak
- Neurri bereziak



Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

TOKI ALAI TABERNA

Karajiloetan espezializatua

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA

Gero eta jende gehiago hurreratzen da Gatzagako Gatz Museora aspaldi honetan

AINTZANE GARDOKI


Gatzagako Gatz Museoa orain dela hiru urte zabaldu zituen ateak. Geroztik lagun asko hurreratu dira gatzaren –garai bateko urre zuriaren– gainekoak jakitera. Asteburuetan ohiko bisitaldiak eskaintzen dituzte arduradunek; astean, berriz, taldeak izaten dituzte.

Orain dela aste pare bat Arizmendi ikastolako umezaintza guneko 5 urteko umeak izan ziren Gatz Museoa ikusten. Museoa pasatu zuten goiza eta gatzaren ustiapena nola egiten den ikasi zuten. “Dortoka bat ekarri zuen gelako ume batek ikastolara. Animaliairen gainekoak ikasi genituen; nolakoak diren, zer jaten duten, non bizi diren, nola ugaltzen diren, eta beste. Dortokak uharteak zer diren ikastera eramán gintuen eta itsasoko ur gaziaz topo egin genuen. Gatz hartu genuen gero abiapuntu. Gatzaren gainekoak ikasi dituzte gelan, eta zer egokiago gatzari buruz gehiago jakiteko Gatzagara etortzea baino”, esan digu Umezaintza guneko irakasle Pili Otxoak.


ESKOLETAKO UME ASKO

“Astean barrena eskoletako umeak eta elkarteetako taldeak izaten ditugu. Normalean 9 eta 12 urte arteko umeak etortzen dira museoa ikustera. Umeekin lan egiteko hainbat unitate didaktiko ditugu prestatuta, eta duten adinaren arabera egokitu egiten dugu bisita, oraingo honetan Arizmendiko umeekin egin dugun moduan”, esan digu museoko arduradun Aitziber Gorosabelek.

Hasteko, Aitziberrek harrera egiten die taldekideei. “Gatza nondik datorren, iturria non dagoen eta uraren eta uretzaren koloreaz eta usaiak jokatzen dugu, besteak beste. Gero, gora eramaten ditugu eta prozesuaren nondik norakoak erakusten dizkiegu. Galderak egiten dizkiegu ondoren; ea zenbat gauza ulertu dituzten jakin gura izaten dugu guk geuk ere. Azkenik, gatza nola egiten den ikusten dute eta gatzarekin lotutako eskulanak egiten dituzte”.



Arizmendi ikastolako 5 urteko umeek galdera ugari egin zizkieten Aitziberri gatzaren gainean.



San Milixan azoka egunean 150etik gora lagunek bisitatu zuten Gatzagako Gatz Museoa.

Orain arte bi astean behin edo, asko jota, astean behin izan dituzte bisitak egiteko. “Joan den aspaldian, berriz, bi edo hiru talde izaten ditugu astero-astero, eta talde bakoitzari behar duen erantzuna

ematen ahalegintzen gara”, gaineratu du Aitziberrek. “Sormenezko bidea jorratuz gauzak azaltzen ahalegintzen gara, hala nola: elurra egiten duenean zergatik botatzen den gatza errepidera; izoz-

kiak nola egiten ziren lehen; lakuak izozten diren neurrian itsasoa zergatik ez den izozten... Hain zuzen ere, horrelako galderak erantzuten ahalegintzen gara. Modu atseginean eta hementxe bertan hainbat

“Joan den aspaldian, bi edo hiru talde izaten ditugu astero-astero bisita egiteko”

“Umeak nik neuk gidatzen ditut; nagusiak gidatzea, aldiz, zailagoa izaten da”

esperimentu eginda gatzaren gainekoak aditzera eman gura izaten ditugu”.

HELDUAK ERE, GERO ETA GEHIAGO

Umeak ez ezik gero eta nagusi gehiago ere hurreratzen dira Gatz Museora. Asteburuetan ohiko bisitaldiak egiten jarraitzen dute: zapa-tuetan 12:00etan eta 17:30ean euskaraz egiten dituzte bisitak eta 13:00etan eta 18:30ean, berriz, gaztelaniaz. Eta domeketan goizez bakarrik egiten dira bisitak.

“Udazkenarekin batera bisitak gutxitu egiten dira. Joan den udan, aldiz, jende ugari izan dugu bisitan; kataluniarrak izan dira gehien. Ingelesen batzuk ere etorri dira, eta Amerikatik ere gero eta gehiago etortzen dira: txiletarrak, venezuelarrak eta mexikarrak bereziki etorri dira Gatzagaraino, Donostia aldetik, museoa ikustera”, jakinarazi digu Aitziberrek. “Umeak nik gidatzen ditut; nagusiak gidatzea, aldiz, zailagoa da; prozesuarekin gelditzen dira batzuk, historiarekin beste batzuk... Galderen arabera desbideratu egiten dute bisita. Baina sekula ez ditut bi bisita berdinean egingo. Ni, orokorrean, oso gustura nabil. Gero eta jende gehiago dator eta batek baino gehiagok errepikatu egiten du, gainera. Hori oso pozgarria da. Martxa onean goaz”, amaitu du Aitziberrek.



- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3
Tel.: 943 71 41 31 Eskoriatza 20540

LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA



Aingeru Ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

AZKOAGA
ESTANKOA

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura

Aretxabaleta eta Eskoriatzako

Gremioen Gida



RADIO
ELECTRICIDAD
LEGAZPIA

"R.E.L.E."

Gotzon Beitia Lazkano

Denda:

Santa Ana 17, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 65

Tailerra:

Santa Ana 12, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 12

ESKORIATZA

Zure etxearen osasun onerako

AIDE GAS S.L.

Loremendi 8, Aretxabaleta.

Tel.: 943 71 27 73 / 605 71 27 05

Gasa • Berogailuak
Bainuak • Iturgintza

PINTURAS



ESKORIATZA

- Pintura orokorrean
- Fatxaden pintatzea
- Iztukuak, eta abar

Olaeta 2, 1-ek. ESKORIATZA
Faxa: 943 77 07 92. Sakelakoa: 605 772 769



Jon Axpe Oyanguren

OYANGUREN Iturgintza

Aranburuzabala 15
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 14
606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

- Iturgintza •
- Gasa •
- Berogailuak •
- Peetrolio-produktuak •
- limatizazioa •

L. GONZALEZ

PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Araba ibilbidea 24, 3-D
ARETXABALETA
686 113 581 / 943 79 65 46

TXOMIN igeltserotza ARETXABALETA

ERREKABARREN 20
607 739 835 / 943 79 63 94



Instalazioen mantenu osoa
Berokuntza • Gasa
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.
Tel.: 943 77 19 88. Faxa: 943 79 59 97

Dintura eta dekorazioa



San Migel 13, beheka C
ARETXABALETA
609 143 119

ARETXABALETA

ITURGINTZA

Lezama zentru komertziala 16
Tel.: 943 79 17 53
ARETXABALETA

AITZORROTZ elektronika

- Telebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10
Otalora, 14 ARETXABALETA

J.J. ITURGINTZA IRURE

URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE 15
ARETXABALETA

943 793 187

Edertasun Gida

'Ile puntak zaindu, xanpu egokia erabili eta noizbehinka ile-apaintzailearengana joan'

Eneritz Jauregialtzo arrasatearra da Kixkur ile-apaindegiko nagusia. 2002ko martxoan hartu zuen ile-apaindegiaren ardura, baina lehenagotik egiten zuen bertan lan. Izan ere, lehenengo Loli, gero Larrad eta orain Kixkur izena duen ile-apaindegiak 18 urteko ibilbidea du.

EROSOTASUNA GURAGO

Gizonak eta emakumeak etortzen dira Kixkur ile-apaindegira, eta betiko bezeroez gain gero eta gazte gehiago sartzen da. Ilearen kolorea aldatzea moda-modan dago, eta horrez gain samur orrazteko moduko orrazkerak eskatzen dizkiete: "Jendeak modari begiratzen dio, baina Aretxabaleta herri txikia izanik aldaketa handirik egitera ez da ausartzen. Gainera, askok erosotasunari begiratzen diote eta eskatzen digute samur orrazteko moduan mozteko", dio Eneritzek.

Nor bere buruarekin gustura egoteko izaerarekin bat datorren orrazkera izatea komeni da. Hori horrela, aholkuak ere ematen dituzte Kixkurko ile-apaintzaileak: "Bezeroak zer dioen entzuten dugu lehenengo, eta itxura erabat aldatu gura bada aholkuak ematen dizkiogu. Denek ez digute kasu egiten, baina batzuek bai".

Ileari ez diogula behar den besteko arretarik eskaintzen dio Eneritzek, eta



Edurne Arenaza eta Eneritz Jauregialtzo ile-apaintzaileak eta Olätz Ruiz estetizista dira Kixkurko langileak.

estresa dela, kutsadura dela... ilea hondatu egiten zaigu. Hori horrela, gero eta arazo gehiago ditugu buru-azalean, ilea meheagoa daukagu eta gehiago erortzen zaigu... eta, gainera, arazoak jende gero eta gazteagoak ditu. Zer egin hori konpontzeko? Aholku gutxi batzuk nahikoa ditugu ilea hobeto zaindu eta politagoa izateko: "Ile puntak zaindu, hondatutako ile luzea oso zatarra da-eta; xanpu egokia erabili, inoiz ez bainurako gelik, eta noizbehinka ile-apaintzailearengana joan. Hortik aurrera norberaren ileari egokitutako tratamenduak daude: zolda duten ileendako, ile mehendako, lehorrendako...", dio Eneritzek.

ESTETIKA ZERBITZUAK

Ile-apaindegiaz gain estetika zerbitzuak eskaintzen dizkie Kixkurrek bezeroei. Olätz Ruiz da bertako estetizista. Depilatzek, erlaxazio masajeak, zirkulazioa hobetzeko eta zelulitisaren kontrako masajeak, makillajeak, aurpegiko tratamenduak, solarium zerbitzua... Gero eta mutil gehiago dator, gainera, estetika zerbitzuak eskatzera: "Lehenengo egunean kosta egiten zaie sartzea, baina behin probatuta sarri etortzen dira. Zergatik ez dira, bada, zainduko mutilak? Emakumeak bezalaxe, berdin-berdin...", dio Eneritzek.

Kixkur
ILEAPAINDEGIA

Solarium bertikala
Ile-luzatzeak
Estetika zerbitzuak

Loramendi 11. ARETXABALETA
Tel.: 943 79 90 79.

Gemes
estetika

Laser bidezko depilazioa
Makillajea

Ilargi plaza 1, Aretxabaleta. Tel. 943 79 99 18.

L-10
ILE APAINDEGIA
ESTETIKA
SOLARIUMA
LORAMENDI, 10
TEL: 943 77 01 26
20550 ARETXABALETA

Irudi
Ile apaindegia

Errekabarren 20
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 80 90

TXIMAK

ILEAPAINDEGI MIXTOA
ETA ESTETIKA
Horriko Plaza 5, behea Tel. 79 83 64
ARETXABALETA

MAITE
ILEAPAINDEGIA

Sarasate 1 behea
Tel. 943 79 59 05
ARETXABALETA

Edertasun Gidan parte hartzeko, deitu 943 79 86 21 telefonora